

Itsasoko garbitzaileak.

Itsasoan, ekosistema guztietan bezala, zaborra tratatzeko mekanismoak ondo egokituta daude. Argi dago hondakin organikoez ari garela, baina hauekin bakarrik ere, sistemaren oreka aldakorra da, eta askotan, hauskorra.

Eta gizakia bizi den kostaldeetatik gertu, lehenengo munduan batez ere, kontsumogizarte honen aztarnak agertu ohi dira, gose aseeginaz, ia dastatu gabe, dena irentsi arren, eta sarritan ondo digeritzen ez duena.

Badago gizakiok itsasoan uzten dugun zaborrezko aztarna hau ezabatu edo behintzat arindu nahi duen jendea. Denbora eta ahalegin altruistak jarrita, uretan murgiltzen dira hauek zabor bila, azukrea eduki ohi zuen poltsa batez armaturik, euren generokideen aztarna mingotsa gozatzeko asmoz izango bailitzan. Kasu honetan, *La Herradura* kostaldea da, baina Espainiako kostaldeko beste toki askotan ere badira boluntarioak, guztiontzat lan egiteko prest.

Lehorrean ohikoa den tresneria guztia aurki daiteke itsas hondoetan; hemen, surrealista dirudite; forma irrealak, zientzia fikzio itxurako plankton bitxia, laster bentosaren parte bihurtuko dena. Itsasoko bizitza forma horietako askoren jabe egingo da, eta itsaspeko mosaikoaren pieza berri gisa integratuko ditu, itsasoaren legea betez: Lehenago edo beranduago, epifitoek estaliko dituzte. Azken finean, baliteke tresna horietako batzuk jatorriz itsasotik etorritako materialez egindakoak izatea.

Baina materiaren betiereko zikloa perfektua izateak ez du itsasoa zaborte gizat hartzea zuzitzen, ezta hondakin gotor jakin batzuen arrisku frogatua deusezten.

Ikusten den zikinkeria gutxienezkoa da; honek, gainera, sortu duen espeziea beste inor ez du eragozten. Arrantzaleen axolagabekeriak utzitako arrantza-sare zati ñimiñoek kezka gehiago merezi dute, adibidez, animalientzat tranpa gaiztoa izan baitaitezke.

Sarriegitan, arrainak eta dortokak, baita zenbait ugaztun eta ornogabe ere, hil egiten dira gizakiaren ergeltasunaren kontra borrokan. Izan ere, ez dago askori kalte egiten dion eta inori laguntzen ez diona baino gauza ergelagorik. Arrantzaren hondakinek labirintu ilunak iruten dituzte. Harrien azpian, alga artean, koralen gainean, hari ikusezinez osatutako sare horiek harrapatu eta kondenatu egiten dituzte bizidunak, bertan utzi dituen ez den batek hariak apurtzen ez baditu.

Itsasoan kalte handiena egiten duten hondakin gotorrak plastikoak dira. Gizakioi bizitza errazten digun gai hau, urtero 10 milioi tonaka doa itsasora. Inguru batzuetan, Ozeano Barearen ipar-mendebaldean, esaterako, benetako irlak osatzen ditu. Alde batetik, plastikoa ez da biodegradagarria. Beste aldetik, behin eta berriro zatitu egiten baita, ez du substratu gisa balio, eta plastikozko hondakinak sakabanatu egiten dira hondoetan zehar. Askotan, plastiko leunak marmokatzat hartzen dituzte dortoka bezalako animaliek, eta janez gero itota hil daitezke.

Gainera, plastiko askok edukitzen dituzten gai kutsatzaile eta toxikoen zenbait organismo kalte egin diezaiekete, uraren osaera bera aldatzen ez omen duten arren. Izan ere, eragin kaltegarrienak ikusten ez direnak dira. Lehorrean ibilgailuek hidrokarburoak erretzeak, industriaren isurketek eta gehiegizko arrantzak aldaketa gogorrak eragiten dituzte itsaspeko ekosisteman, inolako lan boluntarioak arin ezin ditzakeenak.

Hala eta guztiz ere, noizbehinka garbitzaile lanetan aritzen direnena lan garrantzitsua da, guztiontzat onuragarria.